



## Nora jo zerbitzu hau erabiltzeko?

Honako hauetara:

- Familien Atala, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia.
- Babesgabetasun Egoeren Balorazio Atala eta Zaintza Kudeatzeko eta Neurri Judizialak Betearazteko Atala.
- Gizarte zerbitzu oinarrizkoak eta Iruñeko auzo unitateak.
- Osasun etxeak eta adimen osasuneko zentroak.
- Familia epaitegiak eta familia prozesuetan eskumena duten beste epaitegi batzuk.
- Hezkuntza sareko orientabide departamentuak.
- Emakumeari laguntzeko zentroak.

INFORMAZIOA, HEMEN:

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia  
Familien Atala

Abejeras kalea, 1. zk.  
31007 IRUÑA

Tel.: 848 42 12 58 - 848 42 12 64

[orientacion.mediacion.familiar@navarra.es](mailto:orientacion.mediacion.familiar@navarra.es)

Zerbitzura bideratzen duten entitate guztietan

NA-3694/2007

## FAMILIAREN **ORIENTABIDE** ZERBITZUA



Eman pauso bat, eta lagunduko dizugu

# Nola laguntzen dizugu?

**ORIENTABIDE ZERBITZUA** prozesu terapeutiko bat da, familiako kideen funtzionamendua **ALDATZEN** edo **ZUZENTZEN** saiatzen dena, familia osatzen duten pertsonak eta haien familia sistemaren garapena eta bilakaera hobetzeko.

Nafarroako Gobernuaren doako zerbitzu bat da

## Norentzat da?

18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzat

## Zer da?

- Zuei **ENTZUTEKO** leku bat, zuen kezkei buruz hausnartzeko.
- Zailtasunei aurre egiteko **LAGUNTZA**.
- Familia taldeari eta familiako kideei **LAGUN EGITEA**, prozesu terapeutikoan.
- Familia arazoei heltzeko **GAITASUNEN** garapena sustatzea.

## Familia orientabideaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara?

- 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoentzako aholku eta jarraibideez.
- Gurasoen eta nerabeen arteko gatazkez (eskola porrota, jarraibiderik eza, mugak, ihes egiteko arriskua, substantziak eta alkohola kontsumitzea, indarkeria, arrisku praktikak).
- Guraso bakarreko familietako gurasoen eta nerabeen arteko zailtasunez.
- Familia adoptatzaileen arazoez eta harrera familien gatazkez.
- Bikoteen krisialdi z eta banantze prozesuetako zailtasunez:
  - Laguntza emozionala eta orientabidea.
  - Banantze prozesuan seme-alabak hezteko adostasunik ezak sortzen dituen zailtasunak.
  - Gurasoei banandu eta gero seme-alabak hezteko ematen zaizkien orientabideak eta jarraibideak.
- Berregindako familiekin eta etorkinen familiekin dauden zailtasunez.
- Belaunaldien arteko gatazkez.